Arartekoaren 2022R-257-21 Ebazpena, 2022ko azaroaren 14koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailari gomendatzen zaio berrikus dezala kexagilearen diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren etete aldia, zuzenbidearen araberakoa ez delakoan.

Aurrekariak

1. Herritar batek Arartekora jo zuen esateko ez zegoela ados diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) eta etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO) jasotzeko bere eskubideak etenda zituzten denborarekin. Zehazki, esan zuen kezkatuta zegoela Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak 2020ko uztailean EPO ordaintzeari utzi ziolako eta kexa jarri zuen egunean, 2021eko otsailaren 9an, oraindik ez zuelako berrezarri.

2. Kexa espediente honetako agirietatik bi etete ebazpen atera dira, bata EPOrena eta bestea DSBErena.

   Lehenengoa –EPOrena– 2020ko uztailaren 22koa da. Bertan idatzita dago hauxe dela prestazioa eteteko arrazoia:

   > "2/2010 Dekretuaren 5.1.b) artikuluan ezarritakoa ez betetzea: Titularrak beharra izatea ohiko etxebizitzako edo bizitokiko aldizkako gastuei aurre egiteko, araudi testu horren 4. artikuluan jasotakoak.
   >
   > Etxebizitza edo bizitokiagatik gastu justifikagarririk ez izatea".

   Ebazpenean jasota dago baita ere Lanbideren erabakiaren funtsa dela interesdunak 2018ko azaroko alokairuko ordainketa ziurtagiria aurkeztu izana justifikatzeko 2019ko azaroari zegokion etxebizitzarengatiko gastua. Ondorioz, Lanbidek uste izan zuen hilabete horretan kexagileak ez zuela etxebizitzarengatik justifikatzeko gasturik, eta beraz, itzultzekoak izan litezkeen 250 euro sortu zituela, zehazki, 2019ko azaroko EPOren soldatari zegozkionak.

   Bukatzeko, aipatu behar da ebazpenak zehazten duela "EPO jasotzeko eskubidearen etetea mantendu egingo dela etetea arrazoitu zuten kausek iraun bitartean".

   Etetearen arrazoiarengatik galdetu zitzaionean, kexagileak esan zuen Lanbiden azaldu zuela akats sinple bat izan zela, hau da, okertu egin zela ordainketa ziurtagiriak entregatzean. Hala ere, esan zuen benetan kezkatzen zuena zela bere EPO etenda zegoela 2020ko uztailetik.

3. DSBEa eteteari dagokionez, etete hori 2020ko azaroaren 24ko ebazpenaren bidez erabaki zen honetan arrazoituta:

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

"Ez betetzea 147/2010 Dekretuaren 12.1.f. artikuluan ezarritako betebeharra: Jakinaraztea prestazioa jasotzeko eskubidea aldatu, eten edo iraungitzea eragin lezaketen egitateak, horiek gertatu eta hamabost eguneko epean gehienez ere.

(...)

Ez zenuen eman 2019-09-28an zure banku-kontuan egin zen 700 euroko diru-sarrera baten berri; zure alegazioen idatzian azaldu duzu mesede bat egiteagatik onartu zenuela diru-sarrera hori".

Kasu honetan Lanbidek esan zuen kexagileak itzultzekoak izan zitezkeen 651 euro sortu zituela, zehazki, 2019ko iraileko DSBEaren ordainsariari zegozkionak.

Era berean, ebazpenak zehazten du baita ere "DSBEa jasotzeko eskubidearen etetea mantendu egingo dela etetea arrazoitu zuten kausek iraun bitartean".

Etetearen kausaren inguruan galdetu zitzaionean kexagileak esan zuen egia zela alegazioen fasean egiaztatutakoa, hau da, azken finean diru-sarrera hori onartu zuela bere lagun bati mesede bat egiteko, baina bera ez zela bere kontuan sartu zuten diruaren jasotzailea, eta horregatik ezin izan zuela inoiz diru hori erabili. Hori esanik, bukatzeko esan zuen Lanbideri ez ziola diru-sarrera horren berri eman benetan ez zirelako gehitu bere DSBEaren kopuruan eragin liezaioketen baliabide ekonomikoen gehikuntzarik.

4. Testuinguru horretan, Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailaren laguntza eskatu zuen kexa espedienteko alderdi batzuk argitzeko. Zehazki, informazioa eskatu zuten prestazioak berriz ere ordaintzeko atzerapenaren arrazoien inguruan eta galdetzeko noiz zuten aurreikusita ordainketa egitea.

5. Informazio eskaera horri erantzunez, Lanbideko zuzendari nagusiaren txosten bat jaso genuen Arartekoaren erregistro orokorrean, aurtengo martxoaren 7an. Txosten horretan honako hau azaltzen da:

"Interesdunaren espedientea ikusi ostean, honako hau egiaztatu da:

2020-02-10: Interesdunak, R. P. C., andreak, 2018/RGI/005172 espedientearen titularrak, egoitza aldaketa jakinarazi du.

2020-03-11: 2020/REV/028349 berrikuspena hasi da

Entzunaldi izapidetzea 2019ko otsailetik EPOa justifikatu ez izanagatik

2020-07-22: EPOaren etete ebazpena

2020-08-07. Ebazpen jakinarazpena

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

Atzeratzearen arrazoia izan zen pandemian zehar administrazio epeak eten izana, eta posta zerbitzuak denbora gehiago behar izatea jakinarazpenak egiteko.

2020-08-13: EPO berrezartzeko eskatu zuen

2020-09-03: 2020/REV/076738 berrikuspena hasi zen: EPO berrezartzea eta DSBE berritzea.

Aldi berean entzunaldi izapidetzeak egin zitzaizkion eta dokumentazio errekerimenduak baita ere DSBE berritzeko (espedientea berritzeke zegoelako baita ere) eta EPOren berritzea izapidetzeko.

2020-11-24: DSBE etetearen bidez ebatzi zen, ikusi zutelako bere kontuan 700 euroko diru-sarrera jaso zuela eta ez zuela komunikatu. Alegazioen idazkian azaldu zuen diru-sarrera hori onartu zuela hirugarren bati mesede bat egitearren, eta beraz, ezetsi egin ziren.

2020-12-02: Etete ebazpena jakinarazi zen.

Erabiltzaileak, bere kontuko diru-sarrera hori jakinarazi ez zuenez, 147/2010 Dekretuko 12.1.f artikuluan ezarritako betebeharra urratu zuen: *Jakinaraztea prestazioa jasotzeko eskubidea aldatu, eten edo iraungitzea eragin lezaketen egitateak, horiek gertatu eta hamabost eguneko epean gehienez ere.* Egitate hori etete kausa da dekretu horren 43.2 a) artikuluaren arabera: *unitatearen eraketan edo baliabideen mailan egondako aldaketak ezarritako epean ez jakinaraztea*.

Dekretuaren 45.1 artikuluaren arabera, etetea mantendu egingo da eteteko arrazoiak izan diren inguruabarrek iraun bitartean. Eta 45.2 artikuluan adierazten da 43. artikuluko 2. paragrafoko a), d) eta e) apartatuetan jasotako kasuetan etetea hilabetez mantenduko dela lehen aldiz gertatzen denean.

Beraz, etetea arrazoitu zuten kausak indarrean ez daudenez eta gertatu den lehen aldia delako, hilabeteko etetea ezarri behar da[1].

2020-12-14: Ebazpenean errekurtsoa aurkeztu zuen eta zerbitzu juridikoak ebazteke dago.

2021-02-23: ZUZENEANEN berrezartzeko eskatu zuen.

2021-02-23ra arte ez dago baliozkotasun juridikorik duen eskaera agiririk, zeinetan interesdunak dioen berrezarri nahi duela.

ONDORIOAK:

[1] Guk jarri diogu enfasia.

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

Dekretu horren 46. artikuluaren arabera, Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea eteteko arrazoi izan ziren kausak indargabetuta, Foru Aldundiak (orain Lanbidek), ofizioz edo alderdiak hala eskatuta[2] egiaztatuko du ea une horretan betekizunak betetzen diren edo ez prestazioa sortzeko eta dagokion zenbatekoa ezartzeko.

Hala ere, pertsona horrek ez du hitzordurik eskatu tutorearekin aholkularitza jasotzeko eta jakiteko zein den etetearen ondoren jarraituko den prozedura. Beraz, Zuzeneanen 2021-02-23an idazkia aurkeztu zuenera arte berrezartzeko eskatuz, ez genekien erabiltzaileak prestazioa berrezarri nahi zuela.

Salburuako bulegoan hasiera batean ez ditugu DSBE/EPO prestazioak berrezartzen interesdunak idazkirik aurkezten ez duenean, hau da, egitateak jakinarazten dituenean berariaz komunikatuz prestazioa berrezartzea nahi duela, eta hori ez zen gertatu 2021-02-23ra arte".

6. Azaldutako aurrekarietan oinarrituz, eta beharrezkoak diren egitate nahiz oinarriak daudela iritzita, honako gogoeta hauek egiten dira:

Gogoetak

1. Diru-sarrerak eta gizarteratzea bermatzeko euskal sistemak, bazterkeria prozesu edo egoerak bizi dituzten pertsona eta familiei bizitzeko gutxieneko diru-sarrera bermatzeko helburuari erantzuten dio, haien oinarrizko beharrak asetzeko. Halaber, norberaren, gizartearen eta lanaren bazterkeria egoerak arintzeko helburuari ere erantzuten dio. Bestalde, herritartasun eskubideak baliatzeko beharrezkoak diren baliabiderik ez dutenei gizarteratzen eta laneratzen laguntzen die.

   Haren ezaugarrietako bat unibertsaltasun-bokazioa da, izan ere, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak (aurrerantzean, 18/2008 Legea) eta berau garatzen duten dekretuek -Etxebizitzarako prestazio osagarriaren urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretuak (aurrerantzean, 2/2010 Dekretua) eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuak (aurrerantzean, 147/2010 Dekretua)- horretarako ezartzen dituzten baldintzak eta betebeharrak betetzen dituzten pertsona guztiei aitortzen eta bermatzen baitizkie.

   Horrekin lotuta, Lanbidek kexagileari egozten dio lehenik eta behin ez zuela bete 2/2010 Dekretuaren 5.1.b) artikuluan deskribatutako betebeharra, eta bigarrenik, 147/2010 Dekretuaren 12.1.f artikuluan deskribatutakoa. Ondorioz, erabaki zuen 2020ko uztailaren 22an EPO etetea eta urte bereko azaroaren 24an DSBE etetea.

[2] Guk jarri diogu enfasia.

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

DSBEren azken etete hori 2020/REV/076738 berrikuspen prozeduraren esparruan gertatu zen; bere xedea zen kexagilearen EPO berrezartzea eta DSBE berritzea. Hori-dela eta, prozedura DSBEren etetearekin bukatu zenez, halabeharrez EPO etenda mantendu zen, izan ere, lehenengoa etetean halabeharrez bigarrena eteten da, 18/2008 Legearen 41.1 artikuluaren eta 2/2010 Dekretuaren 24.1 artikuluaren arabera.

2. Lanbidek, ohiko moduan, pertsona baten DSBE edo EPO etenda daudenean, ez ditu berrezartzen interesdunak berariaz eskatu ezean.

   Horixe dago jasota baita ere Lanbideren zuzendari nagusiaren txostenean: Salburuako bulegoan hasiera batean ez ditugu DSBE/EPO prestazioak berrezartzen interesdunak idazkirik aurkezten ez duenean, hau da, egitateak jakinarazten dituenean berariaz komunikatuz prestazioa berrezartzea nahi duela, eta hori ez zen gertatu 2021-02-23ra arte".

   Hala ere, hemen jaso diren bi etete ebazpenetan berariaz adierazita dago etetea mantendu egingo dela arrazoitu zuten kausek iraun bitartean. Hortik ulertzen da etete kausa indargabetzen denean prestazioa berrezarriko dela. Gauzak horrela, 147/2010 Dekretuaren 45.1 artikuluak DSBEren ondorioetarako eta 2/2010 Dekretuaren 26. artikuluak EPOren ondorioetarako hori horrela izatea aurreikusten dute.

   Legezko aurreikuspen horrekin bat etorriz, beste aurreikuspen espezifiko bat dago, eta horren arabera, etete kausa indargabetzen denean, Lanbidek ofizioz edo alderdiak hala eskatuta egiaztatuko du ea une horretan prestazioa itzultzeko betekizunak betetzen diren eta hala badagokio, prestazioen zenbatekoa ezarriko du. Aurreikuspen hori 147/2010 Dekretuaren 46. artikuluan jasota dago DSBEren ondorioetarako eta 2/2010 Dekretuaren 27. artikuluan EPOren ondorioetarako. Gainera, Lanbideren zuzendari nagusiaren txostenean ere horrela jasota dago ondorioen atalean.

   Gauzak horrela, arrazoizkoa dirudi azpimarratzea dekretu bietan "gauzatu" aditzak duen modua aginduzkoa dela, hau da, Lanbidek "gauzatuko du". Hortik ondorioztatu da artikulu honek administrazioarentzako agindu bat duela, zeinak ofizioz ala alderdiak eskatuta jardun dezakeen, baina nahitaez jardun egin behar du. Ondorioz, interesdunak eskaerarik ez badu egiten, ofizioz jarraitu behar da.

   Horren harira, Arartekoak Lanbideren 2017ko diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituen diagnostiko-txostenean adierazi zuen bezala, prestazioa etetea eragin duen arrazoia desagertzean, Lanbidek ez luke prestazioen

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

etenaldia luzatu behar beharrezkoa izan ezean, eta hura berrabiarazi beharko luke lehenbailehen.[3]

Orain lantzen ari garan kasuan, Lanbidek 2020ko martxoan kexagilearen prestazioak berrikusteko prozedura hasi zuen eta entzunaldi izapidetzea eman zuen, izan ere, kexagileak ez zituen justifikatu alokairu gastuak 2019ko otsailetik aurrera.

Etete ebazpena ikusirik, kexagileak gastu guztiak justifikatu zituen, 2019ko azarokoak salbu. Hori dela eta, erakunde autonomoak erabaki zuen EPO etetea, eta ondorioztatu zuen itzultzeko 250 euro sortu zituela, hilabete horretako EPOren ordainsariari zegozkionak.

Kexagileak abuztuaren 13an eskatu zuen prestazioa berrezartzeko, baina Lanbidek erabaki zuen berrikuspen berria egin behar zela eta DSBEren etete ebazpena eman zuen 2020ko azaroaren 24an, eta horregatik EPO ez zen berrezarri.

Aipatu moduan, Arartekoak gomendio honetan zalantzan jartzen duena ez da erabakitako etetea, baizik eta bere indarraldia. Arrazoizkoa dirudi baieztatzea hilabete bateko alokairu ordainketaren ziurtagiria ez aurkeztea egintza bakarrean bukatzen den etete kausa dela. Horregatik, Arartekoaren iritziz ez da arrazoizko etete kausaren indarraldia hilabete baino gehiagora luzatzea.

Gauzak horrela, etete hilabetea bukatuta, Lanbidek ofizioz egiaztatu beharko luke une honetan EPO sortzeko betekizunak betetzen ziren edo ez, eta hala bazegokion, berrezarri egin beharko luke.

3. DSBE eteteari dagokionez, 2020ko azaroaren 24an -arrazoia izanik Lanbideri ez jakinaraztea 2019ko irailean konturako diru-sarrera batzuk egon zirela- bigarren oinarriko argudio berberak aplikatu beharko lirateke galdetzeko ea etete kausa ez zen indargabetu ebazpena eman zen unean.

   Aurreko guztiarekin, kasu honetan garrantzitsua den berezitasun bat dago. Izan ere, 147/2010 Dekretuaren 45.2 artikuluan legezko aurreikuspen bat dago dioena errekurtsoetan izandako aldaketak jakinarazteko betebeharra ez betetzeagatik ezarritako eteteak hilabeteko indarraldia izan behar duela eta ez gehiagokoa, horiek egiten direnetik 15 eguneko epean. Berezitasun hori garrantzitsua da, izan ere, oso gutxitan araudi testuan moztu nahi izan da etetearen indarraldia.

   Orain arte azaldutakoaren harira, Lanbideko zuzendari nagusiaren txostenak hauxe dio: "Beraz, etetea arrazoitu zuten kausak indarrean ez daudenez eta gertatu den lehen aldia delako, hilabeteko etetea ezarri behar da".

[3] Eskuragarri hemen: https://www.ararteko.eus/eu/diagnostiko-txostena-lanbidek-diru-sarrerak-bermatzeko-errentaren-eta-etxebizitzarako-prestazio-osagarriaren-prestazioak-hobeto-kudeatzeko-proposamenak-jasotzen-dituena-2017 ikus 38. orrialdea eta hurrengoak.

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

Hori esanda, Espainiako Konstituzioaren 103. artikuluak dio administrazioak legea eta zuzenbidea oso-osorik betez jardun behar duela.

Era berean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 71. artikuluan eta Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 63.o) artikuluan aurreikusitako sustapen eta azkartasun printzipioak aipatu behar dira. Horien arabera, administrazioak ofizioz jardun behar du herritarrek eskatzeko zain egon gabe, izapidea ahalik eta azkarrena eta efikazena izan dadin.

4. Legezko aurreikuspenak gorabehera, Lanbidek bere jarduteko modua justifikatzeko argudio gisa erabili du kexagilearen berariazko nahi falta bere prestazioak berrezar zitezen. Arartekoak uste du kexagileak bere nahia azaldu zuela 2020ko abuztuaren 13an EPOa berrezartzeko eskatu zuenean. Horrez gain, bere DSBEren espedientea berritze fasean zegoen, eta beraz, hainbat agiri entregatu behar izan zituen espedientea onespenekoa izan zedin. Gauzak horrela, ez da zaila ondorioztatzea prestazioak jasotzen jarraitu nahi zuela.

   Edonola ere, deigarria da Lanbideko zuzendari nagusiaren txostenean errepikatzea legezko xedapen batzuk, dirudien moduan erakunde hori behartzen dutenak etetea arrazoitzen duen kausa desagertzen denean ofizioz jardutera DSBE eta/edo EPO eten zitzaion pertsonaren prestazioak berrezartzeko, interesdunak berariaz eskatu arte itxaron gabe. Are gehiago eteteak legez kalkulatutako indarraldia duenean.

   Orain arte azaldutakoan oinarrituta, zilegi litzateke galdetzea ea aurretik aipatutako sustapen eta azkartasun printzipioen arabera erakunde autonomoak ez lukeen aukerarik izango barneko mekanismo bat egituratzeko, zeinak alerta moduan berrikuspen prozedura izapidetzen ari denari jakinaraziko liokeen etete kausa bukatu dela. Aurreko guztia prestazioen berrezartzea ofizioz ezarri ahal izateko, araudiak agintzen duen moduan, titularrak horren inguruko berariazko eskaera bat egiteko zain egon gabe.

   Arartekoak uste du kasu honetan prestazioak ofizioz berrezartzea izango litzatekeela administrazio onaren oinarriak hobekien beteko lituzkeen jarduteko modua. Administrazio on batek indarreko ordenamendu juridikoa oso-osorik betez jarduteaz gain, araua aplikatzen duenean herritarren eskubideen indarraldia ahalik eta hobekien ziurtatu eta bermatu behar du. Bereziki DSBEren eskubideaz ari garenean, izan ere, bere xedea da bazterketa arriskuan edo egoeran daudenen oinarrizko betebeharrak estaltzea.

   Erakunde honek jakin du azkenean Lanbideak kexagilearen DSBE eta EPO berrezarri zituela 2021eko otsailaren 23ko ondorioekin, eta gainera, prestazio biak berritzea erabaki zuela 2021eko apirilaren 1eko ondorioekin.

5. Kexa honen sustatzailearen kalteberatasun eta babesgabetasun egoera, prestazioa etenda egon den hilabeteetan, kritikagarria da nazioarteko zuzenbidearen ikusmoldetik.

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

Gogoratu behar da Europako Gutun Sozial Berrikusiaren (EGSB) [4]13.1 artikuluak gizarte laguntzarako eskubidea ezartzen duela. Espainian EGSB 2021eko uztailaren 1ean indarrean jarri zenez, bertako xedapenak barne-ordenamendu juridikoaren parte dira, Espainiako Konstituzioaren 96. artikuluaren eta Nazioarteko Tratatu eta Akordioen azaroaren 27ko 25/2014 Legearen 28. artikuluak xedatutakoari jarraikiz. Horrez gain, lege horren 29. artikuluari jarraiki, agintari publiko guztiek nazioarteko betebeharrak zuzen bete daitezela babestu behar dute dagokien eskumen esparruan. Horri dagokionez, Konstituzio Auzitegiak, ekainaren 20ko 87/2019 epaian, betebehar horren eskumena agintari autonomikoek dutela adierazi zuen.[5]

Gizarte Eskubideen Batzordeak (Batzordea)[6] egin duen 13. artikuluaren garapenak agerian uzten du prestazio batzuk, hala nola DSBE, haren aplikazio eremuaren barrukoak direla, prestazio helburua delarik gutxieneko diru-sarrera batzuk bermatzea bestelako diru-iturririk ez duten pertsonei (hala nola soldatak, biziarteko errentak, elikagaien pentsioak edo gizarte segurantzako prestazioak), eta beraz, giza duintasunarekin bat datorren bizi-maila lortzeko baliabiderik ez dutenei.[7] Egia esan, behar-egoera da EGSBak gizarte laguntzarako eskubidea izateko ezartzen duen baldintza bakarra, eta beraz,[8] behar-egoera hori egoten den bitartean ordaindu behar dira prestazioak.[9] Hori horrela, Batzordeak ezarri du aipatutako 13. artikulu horren arabera, ezin dela utzi babesgabetasun egoera osoan behar-egoeran dagoen inor.[10] Areago esanda, eskubide hori baliatzeko muga bat justifikatuta dagoela uste duen kasuetan ere, interpretazio murriztailea egin behar dela adierazi du. Hala, legezko oinarri garbia izan behar du, bidezko helburua lortu, eta gizarte demokratiko batean justifikatuta egon behar du.[11]

---

[4] Espainiako Estatua Europako Gutun Sozial Berrikusian (EGSB) oinarritzen denez, gutun horretako xedapenak barne-antolamendu juridikoaren atal dira, Konstituzioaren 96. artikuluaren eta Nazioarteko Tratatu eta Akordioen 25/2014 Legearen 28. artikuluaren arabera.

[5] Ikus aipatutako epaiaren zazpigarren oinarri juridikoa. ECLI:ES:TS:2019:87. Eskuragarri hemen: https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2019-10915

[6]Europako Gizarte Eskubideen Batzordea da estatuek Gutuna betetzen dutela egiaztatzen duena. Europako Kontseiluko Ministro Batzordeak hautatzen dituen 15 kide independentek eta inpartzialek osatzen dute, sei urteko aldirako, eta behin berritu daiteke.

[7] Ikusi: *European Roma Rights Centre Bulgariaren aurka*, 48/2008 erreklamazio kolektiboaren funtsari buruzko erabakia, 38. parag. Eskuragarri hemen: https://hudoc.esc.coe.int/eng/#{%22sort%22:[%22ESCPublicationDate%20Descending%22],%22ESCDcIdentifier%22:[%22cc-48-2008-dmerits-fr%22]}

[8] Ikusi: *Finnish Society for Social Rights* Finlandiaren aurka, 88/2013 erreklamazio kolektiboa, 110, 111. parag. Eskuragarri hemen: https://hudoc.esc.coe.int/eng/#{%22sort%22:[%22ESCPublicationDate%20Descending%22],%22ESCDcIdentifier%22:[%22cc-88-2012-dmerits-fr%22]}

[9] Ikus *European Roma Rights Centre Bulgariaren aurka*, 43. parag. eta Espainiari buruzko XVIII-1 ondorioak (2006).

[10] Ikusi: *Greek General Confederation of Labour Greziaren aurka*, 111/2014 erreklamazio kolektiboa, 83. parag. Eskuragarri hemen: https://hudoc.esc.coe.int/eng/#{%22sort%22:[%22ESCPublicationDate%20Descending%22],%22ESCDcIdentifier%22:[%22cc-111-2014-dmerits-en%22]}

[11] Ikusi XIV-1 ondorioak, 1998, 13. artikuluaren interpretazio-adierazpena.

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

Ebazpen honetan deskribatutakoa ikusirik, ez dirudi kasu honetan Lanbideren jarduteko moduak legezko oinarri argirik duenik, eta horregatik zaila da neurria justifikatuta egotea. Ezin da esan ezta ere interpretazio murriztailea izan zuenik. Ezin da baieztatu, ezta ere, Lanbidek, neurria hartu aurretik, kexaren sustatzailearen beharrizan-egoera nolakoa zen egiaztatu zuenik, edo etendurak interesduna zegoen egoera zein neurritan larriagotuko zukeen.

Gauzak horrela, esan beharra dago Lanbideren jarduteko modu hori ez dela Europako Gutun Sozial Berrikusiaren 13. artikuluak xedatutakoaren araberakoa.

Azaldutakoan oinarrituta, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, honako gomendio hau egin zaio Lan eta Enplegu Sailari:

GOMENDIOA

EPOa eteteari dagokionez -2020ko uztailaren 22ko ebazpenaren bidez erabaki zena-, berrikus dezala dagokion espedientea eta ofizioz egiazta dezala ea prestazioa sortzeko betekizunak betetzen ziren etete kausa bukatu zenean, eta hala badagokio, atzerapenei dagokien zenbatekoa ezar dezala.

DSBEa eteteari dagokionez -2020ko azaroaren 24ko ebazpenaren bidez erabaki zena-, berrikus dezala dagokion espedientea eta ofizioz egiazta dezala ea prestazioa sortzeko betekizunak betetzen ziren araudiak ezarritako etete hilabetea igaro zenean, eta hala badagokio, atzerapenei dagokien zenbatekoa ezar dezala.

Bukatzeko, eta modu orokorrean, azter dezala barne mekanismo bat ezartzeko aukera, zeinak alerta moduan berrikuspen prozedura izapidetzeko arduradunari jakinarazten dion prestazioak etetearen arrazoia bukatu dela, horrela arduradunak ofizioz prestazioak berrezarri ditzan.

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus